

57.  
zk.

1997KO  
IRAILA

GEU ELKARTEAREN BARRESAREKIN

# gasteiz

gasteizko euskaldunen aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 48 / 27

agurraia irailaren 28an

intsumisioaren  
ordua heldu da



# GEU, idazle ISTORIO Kontalariak

Orain aste batzuk pozik hartu nuen aldizkariko zutabetxo hau idazteko gonbidapena, "beti dago zerbaiz kontatzeko" esan omen nion neure buruari. Orain, aldiz, eguneroko lanetik irtenda eta abuztuko eguzkipean, ez dut batere argi ikusten lehen erraza zirudiena.

Paper txuri-txuria aurrean dudala, beldurra da nagusi nire baitan. Ez dakit azaltzen nolakoa den; halere, batzuek diotenez, beldurra libre da. Ez da une atsegina. Dena den, aktoreak ere izaten dira beldur eszenatokian agertzean, edo futbolariak etxean jokatzen dutenean, galtzen dutenean, baina, zoritxarrez, ni ere beldur naiz orain. Ez dakit azaltzen nolakoa den; bai ordea, horren arrazoia Zuek aspertzeko beldur naiz, besterik gabe, ederto baitakit kazetariok askotan aspertzten zaituztegula.

Gaiak ugariak izan litezke: Gasteizko abuztua, egungo injustizia soziala (bai langabeziarena, bai soldatena), politikarien mezu berri eza (alderdi guztiak barne), tolerantzia eza, euskara tresna politikotzat hartzeko ahaleginak... Gai interesgarriak guztiak, eztabaida pizteko egokiak... baina... ez dakit, arratsalde honetan ez naute asetzen, behar bada, beldurtia naizelako, abuztua delako edota betikoak direlako.

Unibertsitatean milaka datu, data, izen eta zenbaki ikasi behar ditugu kazetariok. Kazetaria istorio kontalaria dugu, askotan istorio tristeak eta gordinak, baina, tamalez, benetakoak. Istorioak kontatzeko trebezia hori ez da unibertsitatean lantzen, eta lanean hastean lortu behar dugu trebezia hori kazetariok. Hiru egunetan egin behar, bost urtetan egin ez duguna. Hori ikasketak! Hori bai, lan merkatua dagoen moduan, berdin dio, egun lanean hasten diren kazetariak musutruke egiten baitute lan, musutruke edo larunbateko poteoaren truke. Beraz, badakizu, kazetaria eta euskalduna izanez gero, gurekin duzu ikasteko aukera GEU GASTEIZEN.

Ismael Diaz de Mendibil

# selektibitate eta ikasketen inguruan

IKOLABORAZIOA



Altu: edorta sanz

**BENO**, uda laster amaituko da eta hainbat ikasleri benetako ordua iritsi zaigu. Iraileko azterketak gaingitu ondoren atseden hartu ordez, kirioak dantzan eduki beharko ditugu ikasle guztientzat amezgaiztoa den selektibitatearen zain.

Egun gutxi ditugu UBI n emandako guztia gogoratzeko, gero azterketa madarikatu horretan ahal dugun notarik altuena atera nahi badugu. Gero, UBI eta BBBren arteko batazbestekoa eginez zenbaki bat ezartzen digute, unibertsitate sartzeko eskubidea dugun ala ez erabakitzeko.

"Arazketa" prozesu hau omen da aurkitu duten bide bakarra unibertsitate edonor sartu ez dadin. BBBtik hasten dira irakaskuntzan gauzak behar baino zailagoak jartzen. Azkenean, UBI n sekulako garbiketa egiten dute, hainbat gazteri ikasten jarraitzeko gogoa kendu nahian edo. Selektibitatea azkenengo garbiketa izango litzateke, bertara nahiko ikasle gutxi ailegatzten baitira.

Ez dago eskubiderik gizarte honen etorkizuna garen ikasleoi horrenbeste oztupo jartzeko, berez asko ikastea txarra izango balitz bezala. Gainera, ez dute kontuan hartzen ikasteko dugun

gogoa, gure adimena eta txuletak erabiltzeko gaitasuna baizik; eta helburua ez da gustoko duzuna ikastea, titulu bat ateratzea baino.

Izan ere, irakasleek aspaldi lortu zuten ikasteko gogoa guri ezabatzea; ni, adibidez, ez noa unibertsitate bertara joateko gogoa dudalako, egin dezakedan onena dela pentsatzen dudalako baizik.

Gaur egun, ikasketak ez dira eskubide edo atsegin bat, betebeharra baizik.

Nahiko ironikoa da unibertsitate ailegatzeko hain zaila izatea, ikasketak amaitzea askorako balio ez duenean. Bizitza osoa ematen dugu ikasten gero lana errazago lortzeko eta ikasketak amaitu artean inolako lanbiderik ezin eskuratu dezakegula konturatzen gara; eta alderantziz, tipo bat lizentziatu egiten da eta irakaskuntzan aritzeko ikasketa onik egin gabe, irakasle moduan aritzen de lanean, institutuetan hainbat ikasleri ongi irakasten ez zaielarik.

Aldrebesak dira bizitzan eman beharreko pausuak gutxieneko erosotasuna izateko. Ausardia eta trebezia behar dira txirotasunean ez erortzeko, eta unibertsitatea laguntzatxo bat baino ez da. Hala ere, edozein laguntza ona da, eta ikasteak lanpostu hobeagoetara begiratzea ahalbideratzen badu, ba, aurrera. Hortaz, hezkuntza mailarik hoberena bila ezazue, denadelako "curriculum"-ean dena baitator ondo. Ikastea ez da konponbidea, baina bai lana bilatzeko bultzadatzoxa eta, gauzak diren moduan, edozer erabili behar dugu aurrera jarraitzekotan, ez baitigute ezer dohainik emango. Ikasi, beraz, eta jartzen dizkiguten oztupo guztiak ahal duzuen ongien gaingitu itzazue, beti gure etorkizunaren alde.

Ales Zabala, UBIKO IKASLEA



# 1997ko iraila

2

geu idazle, ismael diaz de mendibil kolaborazioa, ales zabala

3

bertsoak, Xabier Riko

6

Euskaltasunean lagun: Josu Suarez

8

Añana euskaraz, iraganaren ondare bila

14

Intsumiso eguna 97

19

KIROLAK: 1997ko Arabako itzulia uztailean

ERIC CLAPTON legenda bizia Gasteizen



xabier rico

DOIUA: HAMARREKO HANDIA

## Paradisvaren bila

Batzuk munduko beste puntara egina dugu bidaia, besteek, aldiz, zapaldu dute hainbat mendi eta plaia, topatu guran ahal den azkarren paradisu bat lasaia. Kontsumismoak; estresak jota, kitto da hainbat nahia. Ez dute aurkitu Gasteiztik kanpo amestutako garaia.

Hainbatek ondo gozatu ondoren irailan badu mina, oporretako une ederrak: gogorra den orainina! Jasan ezinik etxera bueltan maite ez duen errutina. Zoriontasuna ez da abuztuko kontu sinple ta ziztrina, harrapa ezazu momentuoro, hortarako dago egina.



1996: asier pz. de karkamo

berren ahotan

### ZUZENDARIA:

JOSU KINTAS

### ERREDAKZIOBURUA:

XABIER ZABALETA

### ERREDAKZIO-BATZORDEA:

LEIRE LOPEZ DE ABERASTURI, ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL, MIEL ANJEL ELUSTONDO, DAVID ALVEZ, EDU LOPEZ DE LUZURIAGA,

### MAKETAZIOA:

ALEX BADILLO

### KOMIKIA ETA MARRAZKIAK:

WIGO SARASOLA, AITZIBER IRIONDO

### PUBLIZITATEA:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

### ARGAZKILARIAK:

EDORTA SANZ, JOSEBA UNZALU,

### KOLABORATZAILEAK:

TXIPI ORMAETXEA, JUAN JOSE KASTRESANA, WAKI GAUNA, TXABI ARNAL GIL, MIKEL GARMENDIA

### INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E. (ZUBILLAÇA, OJATI)

25

Spicgirlsmiak erasotu gaitu.

28



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagunduriko aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

**GEU** GASTEIZ EUSKALDUNA

GEU Elkartearen babesarekin

5.000 Aleko Tirada  
Lege-Gordailua VI-582/92  
ISSN: 1133-0988

Pedro Asua, 2 - 3.a  
Tfno. eta faxa 22 21 53

gasteizko euskaldunen aldizkaria



# opor osteko sindromea

*Iraila, lanera/eskolara eta betiko zereginetara bueltatzeko garaia izaten da. Oro har, udako oporrak urteko oporraldi luzeenak izaten dira, eta beraz, gehienontzat lanuzte hutsa baino gehiago dira. Batzuek, udako oporrak antolatzen eta prestatzen luzaro aritzen dira. Beste batzuek, aldiz, ez dute konplikazio handirik nahi eta lasaitasuna helburu duen oporraldia egiten saiatzen dira.*

*Oporralditik bueltatzen garenean indarberrituta eta lanerako gogoak hartuta etortzen gara ala lehen baino nekatuago?*

**NOLA ANTOLATU DUZU UDAKO OPORRALDIA?  
GOGORRA EGITEN ZAIZU EGUNEROKORA BUELTATZEA?**



alfredo goikaca  
BEGIRALEA

1.- Aurten Gironan ibili naiz begirale, baina normalean lagunekin herriak ezagutzera joaten naiz.

2.- Noski. Hala ere, ni begiralea naiz eta nirea lan desberdina da. Horregatik, gutxiago nabaritzen da, lantegian aritzearen aldean, behintzat.



rosa martinez  
IKASLEA

1.- Denetatik egin dut. Batetik, gauza berriak ezagutzeko eta, bestetik, familiarekin lasai egoteko erabili ditut oporrak.

2.- Gustura hartzen dut egunerokoa, klasean primeran egoten naizelako. Gainera, ikasleen oporrak oso luzeak direnez, ez dio axola handirik.



elena ruiz  
IKASLEA

1.- Turismoa egitera joaten naiz normalean, iraillean azterketa izatekotan, ba.. ikasi egin behar. Eta hori da estresa hori.

2.- Ez zait gustatzen, baina gauza onak ere baditu (lagunak berriro ikustea...).



j. carlos apianez  
LANGILEA

1.- Azken bolada honetan zaila da oporrak hartzea, baina hainbeste jai izateak kriston estresa sortarazten dizu.

2.- Gogorra da, baina onartu behar da, bestela "prailearen sindromea" izango duzu. Gero eta jende gehiagori gertatzen zaio.



yolanda argote  
IKASLEA

1.- Batzuek gehiegi egin nahi dute eta horrek estresa sortzen du. Ni, herrira joan naiz, lasai egotera.

2.- Ekainetik irailera arte, denbora luzetxoa dugu. Horrexegatik itzultzen naiz gogoz beteta, baina egunero beti egunerokoa...



j. ramon perez de la pena  
UDALEKO LANGILEA

1.- Oporraldia banatzen dut beti. Astebete lasai egon ahal izateko eta gainerako aldia turismoa egiteko, baina inongo estresik gabe.

2.- Oso pozik itzultzen naiz normalean, poltsikoak hutsik ditudala eta irailaren 1a noiz etorriko zain, berriro kobratzeko.

**ALISAS**  
TABERNA  
KUTXI 59

**BAR KLAKÉ**  
KUTXA, 2  
TFNO. 143883  
GASTEIZ

**PAPERDENDA**  
den-dena  
bizziklatua  
**ZuhaiZti**  
OPARIAK • INPRENTA LANAK • KARTOIZKO ALTZAIRUGINTZA  
Kutxilleria, 6 behea • 01001 GASTEIZ • Tnoa. 28 60 15

**JANTZI ETA OPARIAK**  
Kutxilleria, 27  
Tfnoa: 26 07 10  
GASTEIZ

*Argazki - Estudio*  
**Eramun**  
Heraclio Fournier, 23  
Tnoa: 13 71 02  
01006  
Libertad, 5  
Tnoa: 26 19 91  
01004

**EL**  
**BAR Kutxi**  
e  
g  
m  
n  
e  
u  
a  
k  
o





# joan zen uda...

Batzuek urruti igaroko zituzten, beste batzuek gertuxeago edo etxe aldean. Dena den, oporrak joan dira. "Urak dakarrena, urak daroa..." Hemen "Urak" beharrean "Udak" esatea zehatzagoa litzatekela uste dut.

Udak, bai, agur egin digu eta udazkenaren atarian utzi, etsita. Oraindik abuztuko jaien erresaka ahaztu orduko. Iraileko haize epelak besarkatu gaitu, goizean goiz iratzartu eta ohe goxoa utzi beharrak kolpatu.

Eta hara hor ikasturte edo bestela lanurte berria. Hara hor ikastetxe eta lantoki guztiak, bere ate zabal eta gosetiak nola ireki duzkiguten... Atozte... atozte! Deiadarka.

Abuztuan erdi hutsik genituen kaleak jendez asetu dira, leporaino, haurrek, bere motxilatxoak liburuz beteta, bizkarrean zintzilikatuz, ikastetxe bidean jarri, langileek, begiak guztiz argitu orduko, lanpostuari, erdi ahaztuta zuten lanpostuari heldu diote.

Abuztuan jai izan duten Udaltzainek, OTAko isunak

jartzen hasi dira berriro ere (la letxe!). Egun batetik bestera dena aldatu da hiriko bizitzan. Nor litekeen "uso" bilakatu... eta hego haizearen altzoan etzanda ihesari eman... Baina ametsaren ondorenak, gehienetan behintzat, hutsaren hurrenean bukatzen dira.

Zer egin bada...? Betikoa. Lanari heldu eta aurrera. Halaxe izan da beti mundu honen nondik norakoa eta halaxe jarraituko duela iruditzen zait.

Bien bitartean... animo! Gabonak ate joka datozkigu eta nola ez, berehala abuztu berria ere. Mundu honetako abiadura azkartu egin dela ematen du, guri pausua laburtzen zaigun bitartean, denborarena luzatu... Hala ote?



# Gora 1998ko oporrak!

Artikulu hau idazten ari naiz eta oraindik aurtengo uztaila bukatzeko egun batzuk falta dira. Ez dakit zer dakarkigun abuztuak, baina San Ferminetako jaietako azken eguneko oihiak dioen bezala, datorren urteko oporraldia aldarrikatzen dut.

Oporrak igaro dira eta bakoitzak jakingo edo aztertuko du bete dituen ala ez hasierako asmoak, helburuak eta nahaiak. Askotan gertatzen da plangintza zehatz bat egitea eta zorigaitzoko arrazoiren bat dela medio bertan behera uztea. Hala ere, denok ados egongo zarete oporrak guztiz beharrezkoak direla eta esan daiteke, beharbada, gaur egun gizarte aurreratu eta garatu honetan, gazte, heldu eta adinekoak ados jartzen gaituen gutxienetariko gauza bat dela.

Urtean zehar egiten ez ditugun gauzak egiteko aprobetxatzen dugu garai hau..

Bidaiatu, irakurri, jende berria ezagutu, senideekin eta etxeko beste kideekin harremanak estutu eta abar. Azken finean eguneroko ohikeria apurtu eta indarberriak hartu jarraian datorkigunari aurre egiteko.

Bukatu baino lehen, oporrari dagozkion bi galdera: Zergatik ez ditugu oporrak izaten uztailean abuztuan izan beharrean? Gogora datorkit txikitari nola Iparraldeko senideak etortzen ziren etxera uztailean oporraldiko egun batzuk pasatzera eta ulergaitza egiten zitzaidan egoera hura, haiek oporretan eta geure etxean denok lanean. Uztailean, bestalde, egunak luzeagoak dira eta eguraldia, aurtengoak salbu, hobegoa azaltzen zaigu.

Bigarren galderaren erantzuna irakurlearen eskuetan uzten dut. Ezagutzen al duzue oporretan gaizki edota trakets xamar aritu den norbait? Galdetu eta egiaztatu, baina denbora asko galdu ez dezazun hemen doakizu erantzuna: INOR EZ.

★  
I  
Z  
T  
A  
B  
E  
R  
N  
A  
R  
A  
J  
A  
T  
E  
T  
X  
E  
A

BITORIANO  
ZUIA • ARABA  
TEL. 43 00 73



# GYREA

## jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10  
Telefona: 24 59 33



# Josu Suarez:

**"Hes egiteko aitzakia dira oporrak. Nahiago nuke egunero disfrutatuko bagenu baina..."**

**Josu Suarez Oribe,**

"b-z idatzita, gure amak beti eransten duenez. Ez gara alferrik euskaldunak!". Gasteiztarrek ditu aita-amak. Hala ere, lantegia izan zuen aitak Altsasun, fundizio bat. Gaur egun ere, Gasteizko espaloietan ageri diren estolderia estalki askok eta askok Suarez izena daramate.

1959an jaio zen, maiatzaren 17an. "San Pascual Bailon egunean". Tirtiri hutsa da eta "Txirripistin Jauna" titulua aspaldi du irabazia.

Esaterako, Arabako udalekuetako motorretako bat dugu. "Auto batek pieza denak behar ditu. Motorra, horietako bat besterik ez da". Hamabost urte daramatza udalekuen inguruan lanean, dela begirale nahiz arduradun. "Oraintxe ere nahiago nuke begirale, beste edozer baino, ez zuzendari eta ez beste".

Herrandarrenean bizi da, etxe ongi nabarmenean, autobus geltoki paretsuan. Etxe zahar egurrezkoa. Bakarrenetakoa buelta horretan. Oraintxe aurreko aldea garbitu diote etxeari eta plaka urdina ageri da: "'Gure lekua". Gasteizko PNV sortu zutenena: Goikoetxea, Larunbe eta beste... Gure aitonak kontatu izan zuenez, Franco Gasteizen zen aldiro koltxoiak-eta behebarruan izaten omen zituzten, gartzelarako prest"

Arabako Ikastolen Elkartearen gelaz kanpoko arduraduna da.



Ez dakit batere ote dudan.

**Gizendu egin zara joan den urte honetan...**

Babesneurria izan da: lana besterik egiteko astirik ez dut. Eta gus-tatzen zaizkidan kirolak egiteko astirik ez dudanez...

**Kapitan Pilotu omen zara...**

Patroia! Oraintxe ere Zadorran zeukaat untzia...

**Gasteiz, Vitoria, Gasteiz-Vitoria...**

Bi gauza dira. Gasteiz, muinoko asentamendua zen. Vitoria, zabalondokoa. Hala da eta hala bedi.

**Oraingoxe kezkarik handiena?**

Galdera hauek zuzen erantzutea.

**Zer diozu GEU elkarteari buruz?**

Behinola laguntzeko gogoak ere izan nituen. Denok

## Horoskopo?

Tauro. Zezen-zezenak gara. Eta egunero da ezpata sartuko digun baten bat. Bizitza latza da oso. Polita ere bada bizitza, baina makina bat borroka egin beharra dugu daukagunari eusteko.

## Zer berri auzoan?

Harrigarria. Azkenengo hauteskundeetan mahaian egotea fortunatu zitzaidan eta botu abertzale asko izan ziren. Ia-ia erdia. Beste zenbait mahaian egon izan naiz eta ez da horrelakorik gertatu. Harritzekoa da. Herrandarrrak. Nongoak gara? Ez gara Parte Zaharrekoak, ez

Zabalgunekoak, ez Judiz-mendikoak... Nortasunik ez... Pasadizozko kale bat. Hortxe zen garai batean tren geltokia ere.

## Euskaraz non ikasi zenuen?

Zaragozan hasi nintzen eta hemen segi, AEKn. Andone ezagutu, eskola ondoren elkarrekin irteten hasi...

## Eta haurra etorri zain zaudete oraintxe...

Poz handiarekin gainera!

## Zer bizio dituzu?

Amets egitea.

## Zure alderdirik onena?



Cercas Bajas, 4  
Tel. 27 92 51

**ZURE INPRIMATEGIA  
EUSKARAZ**

**Kolorezko Fotokopiak  
ere egiten ditugu**

**GASTEIZ**

INPRIMATEGIA



izozkiak



gara beharrezko. Oraintxe, zer egiten duen ikusi eta ahal dudala bultzatu, hau da, bazkide izan.

### Egunkariaren bat?

Bat? Bat ez, bat baino gehiago. Egin, Egunkaria... gure aitak, berriz, Arabako Egunkaria erosten du eta handik ere irakurtzen dut batzuetan.

### Telebista programarik?

Andonek esaten dit txotxolotuta gelditzen naizela telebistaren aurrean. Nire ustez, ikusi ditudan programetan "Balinda" zen onena.

### Oporrak zertarako?

Oraintxe, ihes txiki bat egiteko. Nahiago nuke egunero disfrutatuko bagenu, eta egi-

ten ditugun gauzetan sine-tsi...

### Etxeko lanak nork?

Biok.

### Jatekorik onena?

Arraultza frejituak, baratzuria txiki-txiki egina dutela gainean eta Etxarriko txistorra aldamenen. Eta ardo beltza. Gareskoa, adibidez: Nafarruri.

### Filmeren bat?

Asko. Esaterako, "Ehiztariaren gaua".

### Aktore-aktoriesaren bat?

Behin, Sharon Stone gure institutuan ari zela ikasten egin nuen amets. Eta Araba

Euskaraz-era zetorrela ere bai. Ingurukoak, berriz, inbidiatan zeuden...

### Gustuko afizioak?

Ongi egiten dudan zerbaitegitea. Eta ongi egiten dut, gustatzen zaidalako. Eskia, adibidez.

### Munduan den denbora dena izanez gero, zer egingo zenuke?

Aldi batean, ezer ez. Gero, emaztearekin egon. Ondoren, egiten ari garena egiten segituko nuke, baina presarik gabe.

### Libururen bat oporretarako?

Epikoak: "La historia de San Mikel", "Bendición de la tie-


rra", "La isla de los pingüinos"... irakurri horiek! Klasi-koak, nobel sariak...

### Nolakoa litzateke mundua, emakumeek gobernatuko balute?

Gizon zein emakume, ongi gobernatzea da kontua! Pertsona izan behar da, gauza guztien gainetik.

### Txiste bat?

Bat bakarrik? Lehengoan kontatu zidaten hau. Badoaz bi lagun autoa estreinatzerareta...

 Miel Anjel Elustondo

# Floridako altxorra !

## 35

**adaka** 

**madinabeitia**

**altzariak • apaindurak**  
 Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59  
 GASTEIZ



gaur gasteiz  
**raba**

## URTE BETE

pasatxo lanean daraman Euskara Añanan Mingainean (EAM) taldeak euskararen aldeko bigarren jaiak prestatu du irailaren 21erako. Jaiak Langraitzen ospatuko da "Iraganaren Ondare"

lemapean.

EAM euskara berreskurapenaren aldeko lanean laguntzeko sortu zen 1996. urtean.



# AÑANAN EUSKARAZ

## Iraganaren ondarea berreskuratzeko lanean

Irailaren 21. ikundea  
**langraitz 97**  
21 de Septiembre, Domingo



kaldunek Añana euskalduna egingo dutela ziurtatu arren, gurasoen ahalegi-  
nak eta neska-mutilen lanak nolabaiteko berma behar zuelakoan sortu zen EAMan taldea.

### Ikastolatik kanpo

Erderak nagusitasuna lortu duen beste eremuetan bezala ikastolatik kanpo egin beharreko lanak garrantzi itzela du, gelan ikasten den euskara kaleetan entzun dadin. Horregatik helduen euskalduntzea bultzatzeko hitza eman du euskara taldeak. "Helduen euskalduntze prozesua aurrera jarraitzeko baldintzak jarri behar direla uste dugu eta horretarako ari gara lanean: euskaltegiak indartu, berriak sortu,..."

Helburuak lortzeko erakundeekin elkarlana aurrera eramatearen beharra azpimarratu du elkarteak: "Eusko Jaurlaritzak, Dipu-

tazioa eta hainbat Udalekin lan egiten hasi gara eta bide horretatik jarraitzea espero dugu".

Lan asko egiteke dagoela onartzen badute ere lehen pausuak eman direla azpimarratu dute EAM taldeko ordezkariak. Irailaren 21ean Langraitzen izango den euskararen aldeko bigarren jaiak egindako lana erakutsi eta etorkizunean egin beharreko guztiari aurre egiteko bultzada eman nahi du.

Leire Lopez de Aberasturi



## ESKUALDEAREN NORTASUNA

Euskararen aldeko jai handien modura antolatu dute Añanako euskararen aldeko eguna. Langraitz herria zeharkatuko du EAM taldeak egun horretarako prestatutako ibilbideak eta joatera animatzen diren guztien gustoko ekitaldiak prestatzen ahalegindu dira.

Antolatzaileek Añanan euskarari bultzada emateaz gain bertako herri eta jendearen nortasuna erakusteko aprobetxatu nahi dute eguna. Horregatik ohiko kontzertu, bertso saio eta gainontzeko ekitaldiekin batera, besteak beste, eskualdeko nekazari eta abeltzainen lanabes zaharren erakusketa, inguruko herri buruzko argazki erakusketa eta Añanako artisauek egindako produktuen azoka prestatu dute.

**AÑANAKO** hamar udalerriek aspaldi bizi izan zuten bere garairik onena. 2.000 biztanle inguru dituen eskualdeak populazio galtze prozesu gogorra bizi izan du krisi ekonomikoaren eraginez. Despopulazioak aurrera egin ahala euskara galtze prozesua ere gertatu zen. Izan ere, hizkuntza galtzeko zorian egon zen eta euskaldunen tasa %1 izatera iritsi zen.

Egun, Arabako hainbat zonaldeetan ezagutu den prozesua gertatzen ari dela esan daiteke. Guraso gehienek hezkuntza eredu euskaldunetan matrikulatu dituzte beren seme-alabak. Horren ondorioz, Añana euskalduna izango da berriro ere urte batzuen buruan.

Etorkizunean haur eus-



## Arte Ederrei

behar duzun guztia aurkituko duzu

pastelak pintzelak lientzoak  
olcoak ikatzkiloak olioak  
akuarela kaballeteak etabar

500 METRO KARRATU  
PAPERGINTZA, INFORMATIKA  
ETA OFIMATIKARI ESKEINIAK

buruzko sailik zabalena ezagutu ezazu

%10a gutxiago

Arriaga  
enkalgintza, s.l.

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12  
Biltegia: Urtiasolo 2.2. Pabilioia 23 47 00 Fax: 23 49 14

## ELEKTRIZITATEA

muntaia elektrikoak  
automatismoak  
girotzeko musika  
eta segurtasuna

**GURIA**

Matxaria, 2-7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95  
Faxe: 943 10 85 47 20600 EIBAR



# TREBIÑO EGUNA

## Jai egunik gabeko aldarrikapena

**TREBIÑOKO** auzia konpontzeko lanean dihardutenen ustetan urte luzea izan da 1997.a. Eskuduntzak dituzten erakunde guztiekin harremanak izan dira urte osan zehar; egindako bilera eta elkarrizketek, ordea, oraindik emaitzarik ez dutela eman esan daiteke. Portilla, UDA elkarteko presidentea azaldu zenez, Trebiñoko auziaren konponbidea gelditu egin da ekainaren amaieran bildu behar zen Komisioak bilera atzeratu eta gero. "Bilera bertan behera uztea txarra da, baina guk alde guztiak eztabaidan direla pentsatu nahi dugu: arazoari irtenbidea bilatzeko eztabaidan dabilzala, hain zuzen, eta adostasuna lortzea ez zaiela erraza egiten ari".

### Atzera biderik ez

UDAKo lehendakariak "jadanik alde guztiak konponbidearen beharraz ohartu" direla uste du: "Horregatik,

orain egin behar dena bide egokia hitzartzea da, garaile-rik eta galtzailerik gabeko bidea".

Trebiño Araban integratzea da UDA elkartearen azken helburua eta prozesua aurrera eramateko modua ere nahiko argi dakusala dirudi: "Jendearen zalantza guztiak argitze-ko, integrazioak zer ekarriko lukeen argi eta garbi azaltzen duen ikerketa bat egin behar da. Ondoren erreferenduma egin eta horren emaitzak errespetatu". Laburbilduz "Trebiñon ere demokrazia martxan jartzea" eskatzen du elkarteak, ospatuko ez den Trebiño Eguneko lemak zioen bezala "Trebiñori bidea zabaldu".

### Haziz doan eskualdea

Trebiñon 1.100 lagun inguru bizi dira Zortzigarrena elkarteak plazaratu berri dituen datuen arabera. Eskualdearen zabalera kontu-

tan hartuta populazio urria da, bertako herriek populazio asko galdu baitute azken hamarkadetan. Azken urteetan berriz, prozesuari buelta ematen hasi zaiola ematen du, bertako biztanleria hazi egin da eta. Zortzigarrena elkarteak azaldu duenez, "lehen asteburuetarako etxe ugari egin bazi- ren ere, orain urte osoan bertan bizi den lagunen kopurua hazi egin da".

UDA elkarteko antolatzaileen iritziz, eskualdearen egoera legala ez da, auzi politikoa soilik: "Gure egoera legala hemengo biztanleontzako kaltegarria da". Portillak

# 7. alaba

Trebiño eguna 97 - irailaren 14an Argoten ospatuko zela iragarri eta gero, "Euskal Herriak bizi duen egoera nahasia dela eta "jai eguna bertan behera utzi eta datorren urterako zita jartzea erabaki zuen UDA elkarteak. Aurtengoan Trebiño Eguna ez ospatzeak "ez du esan nahi lanean jarraituko ez dugunik; inoiz baino gehiago ahalegindu beharko dugu, hutsunea nabaritu ez dadin".

adierazi zenez, "egoera feudal" horrek maila ekonomiko, sozial eta politikoan du eragina, "baita eguneroko bizitza arruntean ere".

Leire Lopez de Aberasturi

**jo eta ke**  
**TXAPELARRI**  
**TABERNA**  
KUTXI  
kalean

EDAN • JANTEGIA  
**Oleaga**  
ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

Karta betiko eta oraingo platerekin  
Eguneroko Menua  
Betiko kazuelatxoak

**Bacalao Giraldo**  
• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest  
• 36 errezeta ezberdin  
ERAMAN ETA JAN  
"kalitate eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ





# 15 urte bertsoetan

Gasteizko bertsolari eta bertsozaleek badute pozik eta harro egoteko arrazoirik. Izan ere, bertako bertso eskolak 15 urte beteko ditu aurten. 15 urte hauetan Txusta taberna izan du biltoki eskola honek eta bertatik ikasle ugari pasa dira bertsoetan ikasi eta bertsoetan aritzeko asmoz.

## ARABAKO BERTSOLARITZA

zuzpertz eta bultzatzeko ahaleginetan aritu izan dira hasiera-hasieratik eta egindako lanak eman du dagoeneko emaitzarik. Arabako bertsolari gazte sorta polita dugu horren erakusgarri. Bertsolariak sortzeaz gain, bertsozale-tasunak ere gorantza egin du nabarmen azken urteotan Gasteizen, bertso eskolak antolatu eta bultzatutako bertso saioei esker besteak beste.

Hamabosgarren urteurrena dela eta, Gasteizko bertso eskolak bertso saio berezi bat prestatu du datorren hilera-ko. "Eliteko bertsolari intsumituak" izenburua izango duen bertso saioan Millan Telleria, Jon Sarasua, Anjel Mari Peñagarikano eta Jon Enbeita bertsolariak arituko dira kantari. Urriaren 16an izango da saioa, Florida kaleko Kultur Etxean, arratsaldeko zortzietatik aurrera.

Saio berezi horretaz gain, Gasteizko bertso eskolak urte osoan zehar beste hainbat ekitaldi antolatuko ditu urteurrenaren aitzakia hartuta. Oraindik, guztiak zehaztu eta konfirmatu gabe gabe baldin badaude ere, antolatutako ekitaldi guzti-berri izango dugula jakinarazi digute bertso eskolako arduradunek. Zorionak eta urte askotarako!

## Ikasturte berria

Bestalde, aurten ere, ikasturte berriari ekingo diote urrian. Hilaren 22an, osteguna, bertso eskolaren aurkezpen ekitaldia egingo da urtero bezala Txusta tabernan. Bertso eskolan parte hartu nahi duen edonork aurkezpen ekitaldi horretara joatea besterik ez du egin behar edo bestela, Oihane Perea edo



Aitziber Perez de Karkamori deitu izen emateko. Telefonoak honako hauek dira:

OIHANE: 288617  
AITZIBER: 200123

 Xabier Zabaleta



Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m<sup>2</sup>) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m<sup>2</sup>-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrunbainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m<sup>2</sup>) • Mantenimendugimnasiarako gela • Tatami gela (250 m<sup>2</sup>) • Bilar frantsesean eta amerikarrearrean iharduteko mahaiaik • Ping-pong mahaiaik

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...



# ZURE HARATEGIAK

*Jose Luis*  
**GARMENDIA**  
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA 13  
☎ 28 79 42  
GASTEIZ



**SANTI**  
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17  
☎ 270790  
GASTEIZ

**XABIER**  
**AIZPEOLEA**  
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48  
2 eta 3  
Abastos Azoka ☎ 26 78 97  
2 eta 3  
GASTEIZ




**JOSEBA**  
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA  
10 ZENBAKIA  
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89  
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi  
samurretan espezialduak**



**kide**

**APAINDURA**

Cercas Bajas, 27  
Tfnoa: 14 41 95  
GASTEIZ



Aspalditik dator Zadorra ibaiaren aldeko aldarrikapenaren istorioa: Kanalizazioa, kutsadura, isurketak... Jaime, Eguzkiko Kidearen iritziz, egungo egoera larria da.

## Zadorra ez da, azken urteotan, egun bezain gaizki egon



**KRISPIJANAKO** araztegia martxan jarri zenean ibaiaren uren kalitateak hobera egin du apurka-apurka; eta kontraesana dirudien arren, araztegiak berak sortu du arazoa.

Arabako hiriburua zeharkatzen duen ibiaren uren kalitatearen atzera bidea urrian hasi zen. "Krispijanako araztegia berriztu behar zutenez, uren tratamendu osoa egin beharrean kloruro ferriko bota baino ez zuten egiten". Uren tratamendua etetea zikinkeria eta kutsadura errekan behera joan ziren. "Ibaiaren behealdean 3 zentrimetroko geruza beltz bat geratu da. Ez da azterke-

ta sakonik egin, baina litekeena da metal astunaren geruza izatea".

Isurketa horrek Krispijana eta Argantzun bitarteko 15 kilometroetan zegoen bizitza guztia hil egin du. Nola edo hala, AMVISAK, Gasteizko uren kudeatzaileak, isurketaren ardura berea izan dela onartu du, baina legeak ez du inolako ardurarik zehaztu, "eta hori oso kezagarria da. Ezin da ibai bat hil eta gero ezer gertatu ez balitz moduan jarraitu".

### Ibaiaren bidea

Zadorraren kanalizazioa mila bider iragarri eta atzera-

tutako kontua da. Aurten, eta Langraitzeko bariantea egiteko onartu den plangintzaren ondorioz, 600 metroko ibai zatia kanalizatzeko asmoa agertu du Udalak. "Errepidea egiteko bospasei proiektu daude eta ibaiarentzat kaltegarriena dena aukeratu dute. Gainera auzokideak ere aurka daude. Beraz, oraindik ere, aldatuko duten itxaropena dugu".

Ibai zati horren kanalizazioak sortuko dituen eraginak ez direla handiegiak izango onartzen du Eguzkik: "Hala ere, ez da beharrezkoa eta, gainera, kanalizazioak eragin kaltegarriak izaten ditu beti: urak bere berezko

bidetik joateko joera baitu".

Kanalizazioak egin diren zati guztietan arazoak sortu direla gogoratu du Eguzkiko kideak: "Eroskiko kasua gogoratzea baino ez dago. Eroski eraikitzeko kanalizatu egin zen zati bat, eta orain urtero-urtero ibaiak gainezka egiten du zati horretan". Kanalizazioak gainera, abereei eta landareei kalte handiak sortzen dizkie, horien ingurune naturala deusezten baitu.

Kanalizazio proiektu orokorra ez dago amaituta; eta talde ekologistaren ustez, hiru-lau urte arte ez dira lanak hasiko. "Oraindik ez

EGOA LIBURUDENDA



LIBURUAK • MUSIKA • MATERIALE BIRZIKLATUA  
Manuel Iradier kalea, 9-A Tnoa. 11 88 95



EIRE PUB

GASTEIZKO  
IRLANDAR  
TABERNA

Florida, 3  
(legebiltzarraren aurrean)

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK  
berreskuraturiko egurrez eginak  
eta OSAGARRIAK

artibian lanak  
borazegi eta berrualdeko-proiektuak  
egiten ditugu

Trav. Norte, 16 7. pabilioia  
Tfno-faxa 12 05 84  
01013 Gasteiz

Herreria 38, behea  
25 25 03



San  
Antonio, 39



# Arabako ingurugiroaren puntu beltzak

✎ **Haize errota.** Elgea eta Arkamo mendi lerroetan haize errota egiteko proiektua onartu berri da bertako bizilagun batzuk aurka egiteko elkartu badira ere. Eguzki taldea, azken urtean horrenbeste hazi den energia iturri berriaren inguruan izan behar duen jarrera aztertzen ari da: "Hala ere, hainbat tokitan, bere balio ekologikoagatik, ezin dela haize errotarik jarri argi daukagu".

✎ **Transpapel** enpresaren kokapena. Transpapel enpresaren plangintzak aurreikusitako ustiraketa izugarria dela dio Eguzki taldeko ordezkariak. "Jendeak ezin dezake imaginatu zer suposatuko zuen, zenbat zuhaitz moztuko ziren: 10 urtetan Euskadiren azaleraren hiruren bat". Paper enpresaren kokaleku izan daitezkeen herrietan ere kezka handia somatzen da Jaimereren ustez.

✎ **Urbina-Maltzaga** autobidea. Euskal Herriko auzi ekologiko "klasikoa" bihurtzekotan dago. 199ko amaieran azken proiektua plazaratuko dela iragarri da. Eragina somatuko duten herrietako biztanleek proiektuaren aurka agertu dira, eta Araba eta Gipuzkoako hainbat herritako udal batzek atzera bota dute autobidea egiteko proposamena. Errepide berriaren eragina "izugarria izango da; inguruan hamaika azpiegitura daude eta beste batek geratzen diren leku natural apurrak sunsituko ditu".

✎ **Abiadura Handiko Trenea.** Bi urte barru hasiko dira "Euskal Herri osoko naturan kalteak eragingo dituzten lanak".

✎ **Ureztaketa.** Araban ez da ureztaketa plangintza orokorrik egin. Tokian tokiko konponbideak jarri dira martxan, baina "inolako azterketarik edo plangintza orokorrik egin gabe". Horrek etorkizunean arazoak sor ditzakela uste du Eguzkik

✎ **Azazetako** bidearen zabalketa lanak. Lehen zatia jadanik zabalik dagoen arren, Eguzkiren ustez, "Azazetako lanak egin behar ez denaren eredu dira. Proiektua aurkeztu zenean guk iragarritakoa betetzen ari da, lehen baino istripu gehiago egongo zirela. Alde zeudenak ere, aurka agertu dira lanen emaitzak ikusi eta gero".



da plazaratu, hortaz, ez dugu eza-  
guçtzen. Aurreko proiektuak baino  
hobea dela dirudi. Armentiak Ingu-  
ru Giro Ikerketen Zentroak gainbegi-  
ratu du eta hori nolabaiteko bermea  
da".

✎ **Leire Lopez de  
Aberasturi**



## GASTEIZKO BATZOKIAK ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO    ERDIALDE    LAKUA    ZARAMAGA



# izartea

## Desobedientziaren bidean Euskal Herria desmilitarizatzen

IRAILAREN 28AN INTSUMISIO EGUNA IZANGO DA AGURAINEN

**U**dako oporrak atzean geratu zaizkigun arren, hilabete honetan, oraindik badira jai egunak ospatzeko aukera apartak. Arabako intsumisioek irailaren 28an Agurainera joateko gonbidapena egin digute. Azken hilabeteetan lanean aritu dira egun horretarako egitaraua prestatzen eta ez dago hutsegiteko arrazoirik. Hala ere, adi egon hilabete honetan egingo diren beste ekintzekin ere. Agurainen egingo dena ez da antolatutakoa duten ekintza bakarra eta.



**ARABAKO TALDE** antimilitaristek, batez ere Gasteizen lan egiten dutenek, irailaren 28an laugarren 'Intsumisio Eguna' antolatuko dute Agurainen. Antzezlanak, erakusketak, bideoak, kontzertuak, jolasak eta beste hainbat ekitaldiren bidez, antimilitaristen planteamenduak gizarte osoari zabaltzea lortu nahi dute. Horrez gain, talde antimilitarista ezberdinen arteko elkarlana indartzea, militarismoari aurre egitea eta giza-mugimenduko taldeen inplikazioa dira egun horretarako planteatu dituzten helburu nagusiak.

Aurtengo 'Intsumisio eguna' hau guztiagatik oso berezia izango da; Araban ospatzeaz gain, KAKITZAT, Gasteizko KEM, Gasteizkoak, Intsumisioaren

Asanblada eta Izokina (ikasleak) taldeak lehenengo aldiz elkarlanean aritu baitira. Orain arte, KAKITZAT euskal koordinakundeak bakarrik antolatzen zituen 'Intsumisio Eguna'-k, bai lehenengoa Oiartzunen (Gipuzkoan), bai bigarrena Bermeon (Bizkaian) baita iaz Berriozarren (Nafarroa) egin zena ere.

Aurtengoa, berriz, antolatzaileen esanetan 'Gasteizko talde antimilitaristen arteko harremanak gero eta ohikoagoak eta hobeagoak direla kontutan harturik, denon artean antolatzea erabaki genuen.'

Beste aldetik, intsumisioaren arazoa ezezik beste gai batzuk ere jorratuko dituzte prestatutako ekitaldietan, adibidez, mundu ordena berria, gizarte kon-

trola, gastu militarra, zerga eragozpena, antimilitarismoa, defentsa, industria militarra eta abar. Arabako kolektiboek apirillean egindako bere Lehenengo Topaketetan oso garrantzitsutzat jotzen beste gai hauek ere aztertzea. 'Oso zaila izango da egun bakar batean eduki hauek guztiak jorratzea, horregatik urtean zehar egindako ekintzen bidez landu ditugu' adierazi dute bozeramaileek.

### Liburuaren argitarapena

Giza-mugimenduek ere bere aportazioa eskainiko diete antolatzaileei. Bere kooperazioarekin, liburu bat argitaratuko dute hauek. <<Era honetan militarismoak gizarteari ekartzen dion kaltea ikus-

**Ardatz** itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

*Tu Invernadero zure lore sortak*

**ALDABE 6, BEHEA**  
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ





Irailaren egungo diren ekitaldiak

Edizio hau iterakoan hainbat ikuskizun eta aktibitate zehaztu gabe zeuden. Ekitaldien datak mantenduko dira dena den.

Adi egon, beraz, karteletan eta kounikabideetan ekitaldien berri edukiko baituzue. Sorpresak egongo dira.

**Irailaren 11a:**

Kontzertua Gaztetxean.

**Irailaren 13-17an:**

Villasuso Jauregian. Antzezlan berezia 'desobedientzia' gaiaren inguruan. Arabako antzerki talde askok inizatiba honetan parte hartuko dute.

Publikoaren inplikazioa beharrezkoa izango da. Oso interesgarria.

**Irailaren 18an:**

Kontzertua Gaztetxean.

**Irailaren 17an:**

Izugarrizko kontzertua. Agurainen. Adi egon, oso talde onak joko baitute.

**Irailaren 23an: 'Intoxicatio Eguna':**

Agurainen. Lau gune prestatuko dira.

Musika, antzerkia, erakusketak, kontzertuak, hankapaluak... Ibilbidea motza izango dela zin egiten dute antolatzaileek. Kontzertu haundia: Maixa ta Ixiar, Salvate Si Puedes, Síndrome del Descontrol, Reverendo Parker eta... talde sorpresa! Ondo pasatzeko aukera ezin hobea.

Informazio gehiago nahi baduzue eta ordenagailua eta Internet baldin baduzue, Web orrialdera jo.

**Helbidea:**

<http://www.geocities.com/CapitolHill/Lobby/5072/index.html>

puntu ezberdinetatik ikus dezakegu>> azaldu dute antimilitaristek. Hamabosten bat taldek hartu dute parte ekimen honetan. Liburua hilaren 28rako salgai egongo da eta giza-mugimenduko talde guztien artean banatuko da.

Raúl

Sáez de Buruaga

**J A T E T X E A**



Kutxillera, 26 tfnoa: 28 81 47  
•GASTEIZ

**EUSKAL OKELA LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24  
Tfnoa: 25 56 90  
GASTEIZ

**LA RIOJANA**

*jatetxea*

*on egin!*

EGUNEKO MENUA  
ETA KARTA

Kutxillera, 33 tfnoa. 25 02 39



# 2, 3 ETA 5 ORDU

# URRATS GUZTIAK ETA EGA

# MINTZA ETA SAKONTZE

# BENETAN (euskera ordenagailuz)

# MATRIKULAZIO EPEA:

irailaren 1etik 19ra

Errege Erregina Katolikoak, 15-C

TI: 28 89 22

Pintoreria, 74

TI: 28 97 80

Zaldiaran Plaza, 16

TI: 24 49 05



geu gasteiz  
**usika**

# BETAGARRI,

festak irauten duen bitartean

## Betagarri

taldearen lehendabiziko diskoak, orain lau hilabete kaleratu zen arren, merezi du hemen aipamentxo bat egitea. Uda ez zaigu bukatu, herri asko festen zain dago oraindik, eta Betagarriren diskoa festa bera denez...

Jaia erabat loturik dabil Betagarri talde gasteiztarren musikarekin. Hala ere, jaietan entzungai baino zerbaite gehiago dugu zortzikote honen lana; euren musikak jaia erakartzen duela esan nahi dugu.

Errebindikazioa, parranda, Patxanga, Rock and Roll-a, Ska... Denek dute leku bat gasteiztarren eskaintzan, minuturen bat estreineko lan honetan.

B.V.A. Trikuren produkzioaren eskutik, Josu Mongeren laguntza teknikoaz eta Mil a Gritos Records-en babespean, Betagarriren lehenengo hamairu seme-alabak munduratu dira.

Itakirekin, abestiarekin, egon ginen berbetan eta hara zer esan zigun.



### Betagarri ska baino gehiago al da?

Bai, gehiago eta hobego. Oinarria Ska den arren beste musika mota asko jotzen, esperimentatzen eta nahasten ditugu. Ska kut-sua galdu gabe beste errit-mo asko jorratzea da talde-aren nahia.

### Eredu zehatzik Betagarriren musikan?

Skaren bidez gure tankera bideratu nahi badugu ere, saiatzen gara hor ez ixten. Betagarriren barruan Ska primeran dabil, martxan eta dantzan jartzen gaitu, el-kartzan gaitu, guztion gus-tokoa da eta, gainera, gu

geu gasteiz

"Musika nahastuz  
zerbait berria egin  
nahi dugu"

geu gasteiz

bezalako talde batentzat a-proposena delakoan gaude.



## LANDABURU AKADEMIA KLASE PARTIKULARRAK EUSKARAZ!!!

GUATEMALA - 12, BEHEA TFNOAK: 12 09 50 / 909 42 88 36



### HEGOALDE

euskaltegia.

ZURE EGOITZA BERRIA  
Jose Lejarreta 9 behea  
tfnoa 28 41 96  
01003 GASTEIZ

matrikula  
zaitez!

KOADROAK  
MOLDURAK  
LAMINAK  
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

geu gasteiz



**Horrenbeste musika ezberdinetan arituz, norabidea galtzeko arriskurik ez al dago?**

Ez, musikak nahastea, mestizajea, ez da inolako arazoa. Askoren ustez nahasketa honek heldutasun falta erakusten du baina ez. Horixe da, hain zuzen, egin nahi duguna: zerbait berria, musikak nahastu. Horrek ematen dio nortasuna taldeari.

**Musikaz gain, hizkuntza ezberdinak erabiltzen dituzue.**

Bai. Euskeraz, gaztelera, frantsesaz, ingelera, italiaraz eta portugesez abesten dugu. Hitz hauek olerkietatik ateratzen ditugu, batzuetan idazle ezaguna dute eta bes-teetan herrikoiak dira. Aberatsa da hizkuntza asko erabiltzea. Gainera, guk nazioartekotasuna aldarrikatzen dugu, gure identitatearen zati bat da. Bestalde, hizkuntza horietan abestutakoak iraultzaileenak izaten dira. Dena den, euskera da nagusi Betagarriren testuetan. Badakizu, Ska musika da onarria eta euskera ardatza.

**Haize-musika tresnarik**

geu gasteiz

*"Haizea da  
Betagarriren  
ezaugarri  
nabarmenena"*

geu gasteiz

**gabe betagarririk ez?**

Halaxe da. "Burdin Hotza" haizerik gabeko abesti bakarra dugu, eta gaur egun ez gaude halako gehiagorik egiteko prest. Betagarriren ezaugarri nabarmenena haizea da. Haizerik gabe ez ginateke ezer izango.

**Betagarri aurrez pentsaturiko musika egiteko musikarien batasuna al da?**

Ez. Orain lau urte bi gitarrak eta bateria elkartu ziren bertsoak egiteko, ondo pasatzeko. Jarraian ni sartu nintzen abeslari eta koadrilako beste bat baxujole. "Herbestea" izenpean gauzatu genuen lehenengo kontzertua, El Pilar auzoan. Garai hartan bagenuen asmo garbi bat: musika alaia eta ezberdina egitea. Boskotea ginela maketa bat grabatu genuen. Gero tronpeta, saxoa eta, azkenik, tronboia gehitu zitzaizkigun. 1994. urtea zen, kontzertu ugari genuen eta

Betagarriren soinu jaiotzen ari zen.

**Ezberdinak dira diskoa eta zuzenekoak?**

Bai, dexente. Askotan zuzeneko soinu-ekipoaren arabera gertatzen da. Potentzia dagoenean taldeak soinu ona lortzen du, eta, jakina!, horrek eragina du entzulegoarengan. Zuzenekoak ez dira diskoa bezain garbiak, hala ere, hobetzen ari gara. Orain arte denetarik izan dugu: kontzertu txarrak eta onak. Dena den, nahiz eta ekipoa primerakoa izan, taldeak jotzerakoan hanka sartzen badu...

**Nola gertatu zen Mil A Gritos argitaletxearekin grabatzeko aukera? Diskoa egiteko beste eskaintzarik izan al zenuten?**

Ez, ez genuen beste eskaintza garbirik izan. Dena den, gu ez ginen Mil A Gritos-ekoengana joan, ezta eurak guregana etorri ere. Taldearen ibilbidea ezagutzen zuten, gure dinamika ere bai, eta bazekiten kontzertu dexente genuela eta ezagunak ginela maketari esker. Akordioa egon zen, eta

Musika

eurek, bitan pantsatu gabe, diskoa ateratzea erabaki zuten.

**Produktzio dotorea.**

Bai. Soinu oso garbia atera zaigu. Trikuren lana garrantzi handikoa izan da. Produktorea izateaz gain, musika munduaz asko irakatsi digu. Pozik gaude, benetan, berarekin.


**Eta diskoaren azal bereziari buruz, zer diozu?**

Beno, zerbitzari bat agertzen da, infernuaren jabea, zazpi bekatu buruak egitera gonbidatuz. Kolore gorria da nagusi, suarena, geure pentsaerarena.

**Besterik?**

Orain, insumisioaren aldeko disko batean abesti batekin parte hartu dugu, eta Insumiso Egunaren bezperan, irailaren 27an, Agurainen izango gara zuzenean.

**KONTAKTUA**  
(945) 27. 66. 57.

 Txabi  
Arnal Gil

**KONTUA  
DIRUA  
BADA ARG  
ETA GARBI  
DAGO**

Mendia Optikak bakarrik, MultiOpticasek Gasteizen duen ordezkarriak, eskein diezazkizuke halako prezioak. 2.850 Pezetagatik besterik ez, baduzu Bonardi betaurreko bat. Kontua dirua bada MultiOpticasekin argi eta garbi dago.



**LARUNBAT  
ARRATSALDEZ  
ZABALIK  
5 - 8:30**



**ERAMAN  
KUTXATILA KITORIK**



LOR ITZAZU  
TRAVEL CLUB Ben  
PUNTUAK  
HEMENTXE

**MENDIA OPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)  
**GASTEIZ**



# Geurea da-eta geurea da



## QIZON-EMAKUMEOK

pekatu asko egiten ditugu egunero. Urrutira joan gabe, pekatariak aurkituko dituzue, ziur baietz. Hona hemen, bestela, idazten dizuen hau. Lau urte baino gehiago, GEU GASTEIZeko kirol orrialdetan idazten, eta ez dizuet inoiz herri-kirolaren berri etxeratu. Eskubiderik ez dago, akats galanta konpondu nahian, geure kirolaren berri duzue orrialdeotan.

Aspalditik Euskal Herriak baserria utzi zuen kalera joateko. Herrietatik hirirako ibilbide hartan hamaika ohitura eta usadio galdu genituen bidetik euskaldunok.

Horietako bat herri-kirola dugu, batetik, geurea den kirola, bestetik, aintzineko bizimoduaren oroigarria. Izan ere, herri-kiroleko proba guztiek gogoratzen dizkigute nolakoak ziren arbasoen eguneroko zereginak. Adibideak ugariak dira: Lasto altxaria, lastategietan egiten zuten lana gogoratzen digun kirolaria da; zaku lasterketak garaiko kontrabandoa isladatzen du, zozkorapostua edo artoa jasotzeko unea, ingudea, arotzaren lana gogora ekarriz...

Kirol horiek hobeto ezagutzeko asmoz, Badaiotz Herri Kirol taldearen kirolaria den Asier Lafuenterekin mintza-

tu gara. Asierrek ez du zalantzarik, herri-kirolak, etorkizunari begira, non duen abiapuntua aipatzean, "Arabian, Badaiotz taldeaz gain, lauzpabost herri-kirol talde ditugu, Laudioko "Harrizko zubi", Agurainen inguruko Barrundia, Zigoitia... Kirol honek lan handia eskatzen du, indarra... Zoritxarrez, euskaldunok herriak utzi, eta hirietan bizi

gara egun (biztanlegoaren %2a bakarrik bizi da base-rietan). Horrela, geure kirolak eta gizartea urrundu egin dira. Inkestek geure kirola maite dugula dioten arren, ume gehienek ez dute pilota aukeratzen beren kiroltzat, batzuek herri kirolak haur-erentzako iharduera desegokiak direla uste dute, marketingen poderioz hor ditugu kirol berriak... Eta horren aurrean zer egin? Folklore hutsaren bidea errezena da, ez baitu antolakuntza handirik behar eta lan gutxi eskatzen baitu, baina praktika desagertzeko irtenbidea da. Apostua zaharkituta dago, gizarteak dirua jokatzeko beste baliabide batzuk ditu eta. Irtenbiderik onena gure

kirolak egokitzea da: materialak, jokuak, instalazioen neurriak, etab. Hitz batean, gazteak gure kiroltan aritzea dugu helburu". Garai

geu gasteiz

"Apostua  
zaharkiturik  
dago Herri-  
kiroltan"

geu gasteiz

berriak, eta g o g o e t a berriak ere bai Asier Lafuente kirolari gaztearen ahotan. Gainera, berak ederto ezagutzen du zer nolakoa den geure kirola, pilotaria izan baita.

## IKASTARO UGARI

Helburua argia izanik, Badaiotz taldeko Asier Lafuente hainbat ikastaroren arduradunetako bat dugu datorren urteari begira. Esan beharrik ez dago, ikastaroen ardatza herri-kirola izango dela, baina ez hori bakarrik, herri-jolasek ere beren lekutxo beteko baitute.

Azken horien artean guztien ezaguna den "Txorro morro piko tallo ke" dugu, ahozko ohituratik datorkigu joku ospetsu hori, eta egia esan, ez dakigu zehatz-mehatz zelan idazten den. Ondoko taulan ikus dezakezue, ikastaroak ugariak

**axular**

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



**UDABERRIA**

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65  
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33  
GASTEIZ



dira, guztiontzako, haurrentzako zein helduentzako zuzenduak, gainera. "Aurten berritasun asko ditugu, helduentzako ikastaroak, herri-kirola ikusteko irteerak... Udal frontoietan egingo ditugu, eta egitasmo horretan, gure taldearekin batera, Gasteizko Udalak, Arabako Euskal Pilota Elkarteak, Arabako Euskal Joku eta Kirolen Federazioak, IVEFek, eta Vital Kutxak egingo dute lan", gaineratzen du Asierrek. Ziur gaude, Asier bezalako kirolarien lanari esker, Arabako herri-kirolak fruituak ematen jarraituko duela.

✍ Ismael Diaz de Mendibil



ZESTA • SOKA TIRA •  
PILOTA • HERRI KIROLAK  
• HERRI JOLASAK

	ZENBAT	ORDUTE-	EGUNAK		
EKINTZA	LEKU	ADINA	GI		
PILOTA	8	8-12	17:00-18:00	2.000	asteartea/osteguna
ESKUZ	10	8-12	18:00-19:00	2.000	astelehena/asteazkena
ZESTA	6	10-12	17:00-18:00	2.000	astelehena/asteazkena
ZESTA	6	12-14	18:00-19:00	2.000	asteartea/ostirala
ZESTA	6	14-16	19:00-20:00	2.000	asteartea/ostirala
ZESTA	6	+16	19:00-20:00	2.500	astelehena/asteartea
HERRI KIROLAK HERRI JOLASAK	20	+16	20:00-21:00	2.500	astelehena/asteazkena
HERRI KIROLAK HERRI JOLASAK	20	+16	20:00-21:00	2.500	asteartea/osteguna
SOKA TIRA	16	+18	21:00-22:00	2.500	asteartea/asteazkena
SOKA TIRA	8	+18	20:00-22:00	2.500	lan egunetan



**GASTEIZKO**  
**IRUBIDE**  
RAMIRO DE MAEZTU HERRIKO TABERNA  
KALEAN  
**HERRIKO TABERNAK**



HegoAmerikako jantziarik ederrenak  
PINTORERIA kalea • S. Franciscoren kantoia  
Tfnoa: 25 03 52

**IRVSTA** TABERNA  
poteo eta pintxoak  
ESPEZIALITATEA:  
Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19  
Tfnoa: 23 19 33  
GASTEIZ



eu



Bi urte eta erdi pasa dira  
Geu Gasteizko mendi taldeak  
bere lehen ibilaldi  
"formala" burutu zuenetik.  
Alabaina, 1998ko  
martxoaren 19an bildu ziren  
Renfeko geltokian lehen  
30 ibiltariak.  
Pioneroak.



# GEUREKIN IPARLARA

Goizeko zazpiak ziren eta Argantzunera trenez joateko asmoa zegoen, handik mendiz-mendi, ttipi-ttipa itzultzeko. "Ezetz ba! ez dago orain harako trenik!" errepikatu zuen leihatilako gizonak. Ai-ai-ai! Kalkulu errorea, arduradunen okerra. Baina ez bat, eta ez bi, abiatu zen taldetxoia oinez, Armentia aldera. Zaldiaran, Busto eta San Miguel eraso zituzten pauso arinez aurrean zihozten gazteek. Zahartxoagoak atzetik, arnasestuka. Argantzunera jaitsi gero. Hango belarre-

tan elkar hobeto ezagutu ondoren, arratsaldeko hiru-retan hartu zuten tren Gasteiza itzultzeko. 30 ibiltari euskaraz ari, hankak pisu, bihotza goizean baino zertxobait hazixea-goa: ahaleginagatik, eta pozagatik.

Etorriko ziren gero besteak: Aratz, Pagogan, Santa Marina, Jarindo, Gorbeia, eta abar luzea... Araban gehienak, Gipuzkoa eta Bizkaia aldera zenbaitzuk. Gainerako eremu euskaldunekin zorretan.

taberna batean txango luzeago honen prestaketak egiteko. Hamabost ginen hiru egunetako ateraldia egiteko prest. Iparraldera. Auzi praktiko guztiak eztabaidatu genituen eta erabaki sendoak hartu: adibidez, Iparla igoko genuen arratsean babarrunak afaldu behar ziren indarrak berreskuratzeko. Erabateko adostasuna lortu zen gai horren inguruan. Nahiz eta gerora ikusi zen errorea zela hau ere.

Uztailaren 25ean, goizeko 9.30etan ginen espediziokideok Gasteizko azoka aurrean. Autoak leporaino beteak. Esan behar da denetarik bageneramala: txorizo eta mendiko boten artean, soinu txiki bat eta panderoa izkutatuak ziren. Errioxako ardoa ere bazen, horrek eta hark disimuluz sartua. Espediziokideak, berriz, benetan kategoriakoak ziren. Lau neska gazte eta panpox, kantari

Horregatik jarri dituzte aurten begiak urrunago gure mendizaleek. Eta hantxe pausatu, Nafarroa Behera eta Nafarroa Garaia lotzen dituen mendilerro eder horretan: Iparla eta inguruko gailurreria.

**Goazen Iparlara!**

Uztailaren 22an bildu ginen Parte Zaharreko

**ARANBIZKARRA**  
ZURE  
AUTOESKOLA!  
Valladolid kalea, 16 28 28 39  
01002 Gasteiz

**NESKA BAT**  
behar da  
haurrak zaintzeko  
Arriaga auzoan.  
☎ 17 38 09

**OLGA!**  
arropa eta osagarriak  
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!  
Pintoreria, 23 • Tel. 28 18 38 01008 GASTEIZ

bar • restaurant  
**Portal del Rey 9**  
albéniz  
**GASTEIZ**

zure euskal  
**LIBURUDENDA**  
Plaza Berria, 14  
Virgen Blanca, 1  
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ  
**errikoia**

**BEIRATE ESTUDIOA**  
Txikita kalea, 1  
Tfno. 14 64 10  
GASTEIZ







dependitzen du nola kurri zirezten!" Duintasunez heldu ginen Pagalepora, kemezez igo Talatzeraino, eta ohore guztiekin iritsi ginen Iparlako tontorrera. Guztira hiru ordu eta erdi. Gora Geu! Araban bagare! Eta hori hamaiketako ederrez ospatu genuen.



Ekiialdera amildegia zegoen baina beheko lainoari esker ez ginen hasieran jabetu sakontasun espantagarriaz. Ipar aldera, berriz, Artzamedí nabarmentzen zen, bere antena-tresnakeria guztiekin, Itsusiko haitzak beharaxago, eta gure parean Iru-belakaskoa, geldirik, piramide bat iduri. Segitu genuen Tutulia aldera, inguruan putreak genituela: bildurgarri handi eta arranditsu, zeruaren

nonnahi. Gutxi balitz, aurrerago, Lauordenako gailurrak desafiatu gintuen, ozarkeria handiz. "Hordago" egin zigun, eta guk "Kanta!" erantzun. Argazkitxo bat goian eta Buztanzelaiko lepora. Deskantsu ederra, ondo merezia. Hortik aurrera, behera, beti behera, GR10-eko sendratik Baigorriko Leispars auzoraino. Aterpera zuzen. Arratsaldeko 6.30ak ziren.

keen haize orkestraren saioa ekarri zueñ, baina gailendu zitzaion bestelakoa, kontzertu alternatiboa, alegia. Zurrungalari izigarriak jaio ziren gauaren pakea behin eta berriz hautsiz. Batzuek ondo, baina beste askok ez zuten hain ondo lo egin. Orduan pentsatu zuten babarrunena ere kalkulu errorea izan zitekeela. Eta ardoarena?

nak pizkortu gintuen, bere bazterretatik mirestu genituen herriko etxe loredu pinpirinak. Baina Eskisaroi taberna zita obligatua genuen, hango alaba baita Maite, Gasteizen aspaldian bizi den adiskide eskuzabala. Bistan da asko poztu zela gu bezalako jende jatorra ikustean, eta gonbidatu gintuen zerbait edatera. Guk esker mila errateko gure neska kantariak jarri genituen lanean. Denak kontentu!

#### Hirugarren egunean ...

Ondoko goizak, gure azken eguna ekarri zuen, goiak lanbro sendoz estaliz. Eta halaxe estali ziren, baita ere, batzuen asmoak: 1.306 metroko Autza mendira ezin zen igo, lainoak hartuta baitzegoen.

Heldu zen orduan Gasteizko bidea hartzeko erabaki latza. Giro sargoriak ez zuen laguntzen. Autoetan sartu baino lehenago, gure taldearen leloa errepikatu genuen: dantzan eta algaraka. Lelo hori zein den jakin nahi duenak, ordea, ez da hartaz artikulu honen bitartez jabetuko. Jai! Etor dadila Geurekin mendira.

Gasteiza begira jartzean, Izpegira jo genuen autoekin. Handik, oinez Buztanzelaiko lepora egin genuen berrira, ibilaldi laburra bezain polita burutuz. Urrunera Erratzu ikusten genuen. Erratzu ondoren Elizondo dago eta bertako festak ziren. Autoa hartuta arratsaldeko lauretan iritsi ginen, festa egile guztiek siesta egiten duten orduan. Baztan erreka, ordea, ez zegoen lo. Bere bizitasu-

Badakizue, hilabetean behin, Txapela aurrean goizeko 9ak eta erdietan... Aldizkarian topatuko duzue informazioa.

**Maite Mendiburu**  
**GEUrekin Mendira**  
**taldekoa**



jabe. Eguzkiak uxatu zuen lainoa poliki-poliki, argia emanez baina gehiegi berotu gabe. Arroza-Baigorriko bailara osoa genuen begibistan. Harrietatik Astaterako bidea polita izan zen oso, baso atseginarean ondorengo gailur ederra bistaraziz. Pottokak

Gaueko otordua leherkaria izan zen, babarrunei esker, eta ondoko gaubeila ez zen gutxiagorako izan. Iluntzen ari zuela akelarretxo bat inprobisatu genuen trikitixa, Errioxar ardoa, umorea, gogoa eta beste hainbat aitzakia lagun. Gauak espero zite-

**TXVSTA**  
**TABERNA**

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**  
**Mateo Moraza kalea**  
**GASTEIZ**



**GORETTI**

**ILEAPAINDEGIA**

Korreria, 14 MIKEL DEUNAREN PASABIDEA  
 Tfno: 12 08 88  
 01001 - GASTEIZ



**ARTEPAN**

Artisau  
 Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37  
 01005 GASTEIZ



# ITZULERA OPERAZIOA



EGUNSENTIA BERRIRO... HIRI  
HONETAKO BITANLEAK ITSAS-  
ALDEAN GUSTORA, OPORTETAN  
ORANDIK... BITARTEAN  
HIRIA, BAKAR -



BAKARRIK? EZ, BA!! NIRE ESKUETAN  
UTZI ZUTEN KANPORA ABIATU  
ZIRENETIK... BAI, HIRIKO MAITO-  
SUNA ETB TRISTURA NIRE  
MENPEAN AZKENEAN.

1

**SAN FRANCISCO**  
KANTOLA 4  
GASTEIZ

**PARRAL**  
TABERNA.

- ASTEARRERO KONTZERTUAK ANTZERAK
- JANTOKI BEJETAIRANOAK PINTOAK

Peru 8  
22 60 50

Jose Mardones 8  
26 35 40

Arana 30  
25 24 00

**EUSKARA**  
GALDUZ GERO,  
**AKABO**  
EUSKAL HERRIA

12 ERDIA EMAN

**aek**





BAI, ALDE EGON ETA  
AGURE-ATSOAK ETA LANGA-  
BETUAK AHAZTUTA UTZI  
ZITUZTEN ZEHARO  
...

BA KAR-  
BAKARRIK UTZI ERE  
... ETXEBIZITZA MADARI-  
KATUAK ZAIANTZEN.

**J  
A  
T  
E  
T  
X  
E  
A**

**XIXILU**  
AMARIKA PLAZA 2  
23 00 68 GASTEIZ

**Xabier**  
musika ona eta giro ezinhobea  
**taberna**  
Kutxileria 23

**AMILAMIA**  
arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17  
tfnoa: 27 40 09  
GASTEIZ





## KLASEAK

matematika  
fisika  
kimika  
biologia  
geologia  
euskara

irakaskuntza ertaina  
eta unibertsitatea

☎ 26 03 54

HOBETU EZAZU ZURE BIZITZA KALITATEA

# HOBEBEKI

ALTZARIAK ETA ATSEDENA

- koltxoiak • somierrak •
- kanapeak • ohe artikulatuak •
- latex • futton • ipar edredoak •
- neurritara egindako armairuak •

Plo XII.a kalea, 7 behea  
Tfnoa. 27 23 44

01004 VITORIA-GASTEIZ





**plató**  
TABERNA

☎ 22 65 64  
GASTEIZ

Zaldiaran Plaza, 10

**IPARRA**

taberna

Giro ezin hobea!

Florida, 80  
Tfnoa. 26 77 81

GASTEIZ

**xurrut**



KUTXI 103  
GASTEIZ



# GASTEIZKO UDALA



## Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

SAILA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA	Espainia plaza, z/g	16 13 37	
	ZERBITZU OROKORRAK	Espainia plaza, z/g	16 13 08	
	GIZARTEGINTZA (ARGIBIDEAK)	Espainia plaza, z/g	16 13 44	
	GAZTEEN ARGIBIDE BULEGOA	Espainia plaza, z/g	16 13 30	
	FUNTZIO PUBLIKOA	Espainia plaza, z/g	16 11 41	
	IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g	16 13 20	
	ARGIBIDEAK ETA ERREGISTROA	Espainia plaza, z/g	16 11 88	
	ERROLDA	Espainia plaza, z/g	16 11 06	
	BULEGO TEKNIKOAK	BORONDATEZKO DIRU-BILKETA	Dato, 11	16 16 68
		ZERGEN GESTIOA	Dato, 11	16 11 33
INGURUGIROA		Dato, 11	16 11 20	
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIO-RAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 99	
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)	ARGIBIDEAK	Fray Zacarias	16 12 16	
EKONOMI SUSTAPENA		Fray Zacarias	16 12 11 16 13 48	
GIZARTE ETXEA	JUDIMENDI	Urriak 12 kalea, z/g	16 17 40	
	LANDATXO	Santa Maria kalea, 4	16 16 82	
	IPARRALDE	Zuberoa plaza, z/g	16 17 60	
	ARIZNABARRA	ARIZNABARRA, 19	13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK (KULTURA)		16 12 31	
	BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ-PENERAKO BULEGOA			16 36 91	



Z E  
E L  
R E  
B I  
B I  
D U  
N A  
K  
Z U  
T Z  
U



# gure kultura zaintzen

## ARABAKO MUSEOAK

**Arte Ederretako Museoa**  
Fray Francisco pasealekua 8  
01007 Gasteiz  
Tel. 945-181918

**"Fournier" Karta Museoa**  
Bendaña Jauregia, Cuchillería 54  
01001 Gasteiz  
Tel. 945-181920

**Arkeologi Museoa**  
Correría 116  
01001 Gasteiz  
Tel. 945-181922

**Arma Museoa**  
Fray Francisco pasealekua 3  
01007 Gasteiz  
Tel. 945-181925

**Natur Zientzietako Museoa**  
Jesusen Zerbitzarien kalea 24  
01001 Gasteiz  
Tel. 945-181924

**La Hoyako Museoa**  
01300 Biasteri  
Tel. 945-181918

**Arabako Heraldika Museoa**  
Mendezako Dorrea  
01191 Mendoza

**Ekintzak**  
Ikustaldi gidatuak  
Ekintza didaktikoak

**Arabako Museoen ordutegia**  
Asteartetik ostiralera: 10etatik 14etara  
eta 16etatik 18.30etara  
Larunbatetan: 10etatik 14etara  
Igande eta jaiegunetan: 11etatik 14etara  
Astelehenetan itxita

## EUSKALDUNTZE ZERBITZUA

Jesusen Zerbitzarien kalea 3  
Tel. 945-181881

## KULTURA ETXEA

*Liburutegia*  
*Kontsulta Aretoa*  
*Bideoteka*  
*Mailegu Saila*

La Florida ibilbidea z/g  
Tel. 945-181944

## ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN AGIRITEGIA

*Liburutegia*  
*Ikerketa gela*

Miguel de Unamuno 1  
01006 Gasteiz  
Tel. 945-181926

## ERAKUSTEKA ARETOAK

**Amarica Aretoa**  
Amarica Plaza 4  
01005 Gasteiz  
Tel. 945-181977

**Kultura Etxea**  
La Florida ibilbidea z/g  
01005 Gasteiz  
Tel. 945-181944

**Arabako Lurralde  
Historikoaren Agiritegia**  
*La ciudad latente*  
*Gert Voor in't Holt-en argazkiak*  
Miguel Unamuno 1  
01006 Gasteiz  
Tel. 945-181926

Diputación  
Foral de Alava

Departamento de Cultura y Euskera



Arabako  
Foru Aldundia

Kultura eta Euskara Saila